AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.–

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko otsailak 13.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

DISPOSICIÓN FINAL TERCERA.–

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de febrero de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## OSASUN SAILA

## 836

7/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Osasunbide Publizitatea Araupetzeko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.

Osasunbide Publizitatea Araupetzen duen urriaren 15eko 550/1991 Dekretuak, zein 112/1994 Dekretuaren bitartez aldatu zen, Osasunbide Publizitatearen Kontrolerako Batzordea sortu zuen 4. atalean. Batzorde horren zeregina publizitatea kontrolatzea eta zaintzea da, aldez aurretiko administrazio baimenak izapidetzeaz eta proposatzeaz gain.

Batzorde hori aipatutako Dekretuko 5. atalak arautzen du eta lehendakariaz gain, 11 kidek osatzen dute.

Sortu zenetik igarotako denbora, ihardunean egon den bitartean pilatutako esperientzia eta Osasun Saileko egitura berria kontutan hartuta, komenigarri ikusten da batzordekideen kopurua aldatzea.

Bestalde, publizitate sanitarioko administrazio baimenen iraupena 3 urtetik 5 urtera luzatu nahi da, bai hemendik aurrera egiten diren eskabideetarako bai emandako baimenen berrikuntzetarako.

Ondorioz, Osasun sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Lehen atala.*– Urriaren 15eko 550/1991 Dekretuaren 5. atala horrela geratuko da idatzita:

«5.1 atala.– Osasunbide Publizitatearen Kontrolerako Batzordea lehendakariak eta beste 14 kidek osatuko dute. Kide guztiak Osasun sailburuak izendatuko ditu.»

2.– Batzordearen osaketa hau izango da:

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## 836

DECRETO 7/1996, de 9 de enero, por el que se procede a la segunda modificación del Decreto que regula la publicidad sanitaria.

El Decreto 550/1991, de 15 de octubre, por el que se regula la publicidad sanitaria, modificado por el Decreto 112/1994, crea en su artículo 4 la Comisión de publicidad sanitaria, con funciones de control y vigilancia de la misma, así como las de tramitación y propuesta de autorizaciones administrativas previas.

La composición de la antedicha Comisión se regula en el artículo 5 de la norma, estando formada por un Presidente y 11 vocales.

El tiempo transcurrido desde su creación, la experiencia acumulada durante su funcionamiento así como la nueva estructura del Departamento de Sanidad, hace aconsejable que se modifiquen los miembros que van a formar parte de ella.

Además, se intenta ampliar el plazo de validez de las autorizaciones administrativas de publicidad sanitaria que hasta ahora era de 3 años, aumentándose a 5 años para las nuevas solicitudes, así como para las renovaciones de las ya concedidas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 9 de enero de 1996,

DISPONGO:

*Artículo primero.*– El artículo 5 del Decreto 550/1991, de 15 de octubre, quedará redactado de la siguiente forma:

«Artículo 5.1.– La Comisión de control de la publicidad sanitaria estará formada por un Presidente y 14 Vocales, nombrados por el Consejero de Sanidad.

2.– La composición de la misma será la siguiente:

Lehendakaria Osasun Saileko Osasun Antolamendu eta Ebaluaziorako zuzendaria izango da.

Gainerako 14 kideak:

– Osasun Saileko Osasun Antolamendu eta Ebaluaziorako Zuzendaritzako bi teknikari.

– Osasun Saileko Araubide Juridikoaren Zuzendaritzako teknikari bat.

– Osasun Saileko Osasun Publikorako Zuzendaritzako teknikari bat.

– Osasun Saileko Arabako Lurralde Ordezkaritzako teknikari bat.

– Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako teknikari bat.

– Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako teknikari bat.

– Kide bat Euskadiko medikuen elkargo ofizialek proposatuta.

– Kide bat Euskadiko farmazilarien elkargo ofizialek proposatuta.

– Kide bat Euskadiko odontologo eta estomatologoen elkargo ofizialek proposatuta.

– Kide bat Euskadiko psikologoen elkargo ofizialek proposatuta.

– Kide bat Euskadiko OLT/DUEn elkargo ofizialek proposatuta.

– Kide gehien eta lurralde eremu haundiena hartzen duten kontsumitzaile-elkarteetako edo horien federazioetako bi ordezkari, beti ere, elkarteok behar bezala zentsatuta badaude.

Osasun Saileko Osasun Antolamendu eta Ebaluaziorako Zuzendaritzak Batzordean dituen teknikarien artean batzordekideek aukeratutakoak egingo ditu idazkari lanak.

3.– Batzordekideek honela ordezkatuko dira:

– Osasun Antolamendu eta Ebaluaziorako zuzendaria bere zuzendaritzako teknikari batek ordezka dezake.

– Elkargo ofizialetako edo kontsumitzaileen elkarteetako kideak erakunde horiek berek izendatutakoek ordezkatuko dituzte. Ordezkapena Batzordearen idazkariaren aurrean ziurtatu behar da eta Batzordearen antolaketa arauak errespetatuz egingo da.

– Osasun Saileko teknikarien artean izendatutako kideen ordezkariak hierarkian ordezkatuaren gainean gertuen dagoen buruak izendatuko ditu».

*Bigarren atala.*– Urriaren 15eko 550/1991 Dekretuaren 10. atala honela geratuko da idatzita:

«10. atala.– Emandako baimenek 5 urteko iraupena izango dute, beti ere, baimendutako publizitatezko mezuan funtsezko aldaketarik egiten ez bada edo baimena eman zeneko gora-beherak aldatu ez badira. Epe hori amaituta baimenaren berrikuntza eskatu behar da.

Como Presidente, el Director de Ordenación y Evaluación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

14 Vocales:

– 2 técnicos de la Dirección de Ordenación y Evaluación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

– 1 técnico de la Dirección de Régimen Jurídico del Departamento de Sanidad.

– 1 técnico de la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad.

– 1 técnico de la Delegación Territorial de Sanidad de Álava del Departamento de Sanidad.

– 1 técnico de la Delegación Territorial de Sanidad Bizkaia del Departamento de Sanidad.

– 1 técnico de la Delegación Territorial de Sanidad de Gipuzkoa del Departamento de Sanidad.

– 1 a propuesta de los Colegios Oficiales de Médicos de Euskadi.

– 1 a propuesta de los Colegios Oficiales de Farmacéuticos de Euskadi.

– 1 a propuesta de los Colegios Oficiales de Odontólogos y Estomatólogos de Euskadi.

– 1a propuesta de los Colegios Oficiales de Psicólogos de Euskadi.

– 1 a propuesta de los Colegios Oficiales de ATS/DUE de Euskadi.

– 2 representantes de las Asociaciones de Consumidores o de sus Federaciones debidamente censadas con mayor número de asociados e implantación territorial.

Actuará como Secretario uno de los técnicos de la Dirección de Ordenación y Evaluación Sanitaria del Departamento de Sanidad, elegido por la comisión de entre sus miembros.

3.– Los miembros de la Comisión podrán ser suplidos de la siguiente forma:

– El Director de Ordenación y Evaluación Sanitaria podrá ser suplido por un técnico de su Dirección.

– Los vocales que representen a los Colegios Oficiales o a las Asociaciones de Consumidores podrán ser suplidos por los que designen estas organizaciones, acreditándolo ante el Secretario de la Comisión, respetando las reservas y limitaciones que establezcan sus normas de organización.

– Los vocales nombrados entre técnicos del Departamento de Sanidad podrán ser suplidos de conformidad con la designación que realice el superior jerárquico inmediato del suplido».

*Artículo segundo.*– El artículo 10 del Decreto 550/1991, de 15 de octubre, quedará redactado de la siguiente forma:

«Artículo 10.– Las autorizaciones concedidas tendrán una validez de 5 años, siempre y cuando no se produzcan modificaciones que alteren de modo sustancial el contenido del mensaje publicitario autorizado o las circunstancias de su otorgamiento, debiendo solicitarse su renovación transcurrido ese plazo.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jarri aurretik egindako baimen eta berrikuntza eskariak berorren arabera erabakiko dira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Osasun sailburuak izango du Dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko eman behar diren xedapenak emateko ahalmena.

*Bigarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko urtarrilak 9.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las solicitudes de autorización y renovación presentadas antes de la entrada en vigor del presente Decreto se resolverán de acuerdo con lo establecido en el mismo.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.–* Este Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de enero de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**837**

AGINDUA, 1996ko otsailaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko lanpostuen banaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea ezartzen duena.

Otsailaren 13ko 35/1996 Dekretuak, Euskal Autonomi Elkartean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloa ezartzearen ondoriozko unibertsitateaz kanpoko sare publikoko irakasleen birbanaketa arautzen duenak, 6. atalean ezartzen duenez, DBHko lehen zikloko lanpostuen banaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek partehartze-eskabidea aurkeztu beharko dute horretarako jarriko den epearen barruan.

Esandako Dekretuak bukaerako bigarren xedapenean jasotzen duenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak du Dekretu hori garatzeko behar diren xedapenak emateko ahalmena.

Hori dela eta, zera

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* Otsailaren 13ko 35/1996 Dekretuak xedatzen duenaren arabera Dekretu horrek arautzen

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**837**

ORDEN de 14 de febrero de 1996, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se establece el plazo de solicitud de participación en el proceso de asignación de puestos de trabajo del primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria.

El Decreto 35/1996, de 13 de febrero, por el que se regula el proceso de redistribución del personal docente de la red pública no universitaria afectado como consecuencia de la implantación del primer ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria en la Comunidad Autónoma Vasca establece en su artículo 6 que quienes se encuentren interesados/as en participar en el proceso de asignación de puestos de trabajo del primer ciclo de ESO, deberán presentar solicitud de participación dentro del plazo que reglamentariamente se establezca.

Dispone asimismo el referido Decreto, en su disposición final segunda, que se faculta al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias en desarrollo del mismo.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo único.–* El profesorado que conforme a lo establecido en el Decreto 35/1996, de 13 de febrero,